

# Gure bizilagunik onenak

## Zer da?

“Gure bizilagunik onenak” saguzarrak hobeto ezagutzeko **haur eta familiei zuzendutako ekintza** bat da.

Bertan, lau panelez osaturiko erakusketa baten bidez, **saguzarren inguruko ezagutzak zabaltzeko** azalpenak eskainiko dira.

- ✓ Ezaugarriak
- ✓ Bizi-zikloa
- ✓ Espezieak
- ✓ Gizartearentzat onurak
- ✓ Jasaten dituzten mehatxuak

Gainera, saguzarren babes-kutxa eta detekzio gailu ezberdinak bertatik bertara aztertzeke aukera izango da.



Iluntzea iristearekin batera, partehartzaileek **saguzarren deiak entzun** ahal izango dituzte ultrasoinu detektagailuak erabiliz. Honek, bertan hegan dabiltzan saguzarren espezieak identifikatzea ahalbidetuko die.



## Noiz egin daiteke?



Saguzarren presentzia bermatzeko maiatzetik irailera bitartean egin behar da. Ekintzaren ordutegiari dagokionean, iluntze-ordua baino ordu bete lehenago hasi eta ordu terdi inguruko iraupena izatea estimatzen da.




## Nork gidatuko du ekintza?

Ekintzen gidaritza Naturtzaindia Elkarteko kideen eskutik egingo da. Espero den jende kopuruaren arabera, elkarteko kide bakoitzak talde baten gidaritza hartu dezake.



## Zein hizkuntzatan?



Erakusketa osatzen duten lau panelak euskaraz dauden arren, saioaren garapena euskaraz edota gazteleraz egiteko aukera dago, baita hizkuntzaren ikuspegitik ekintza misto bat garatzekoa ere.

## COVID-19: Ekintza segurua al da?

Ekintza bere osotasunean aire librean garatu daiteke eta beraz, kutsadurak ekiditeko ohiko neurriak errespetatuz, egungo testuinguruan antolatzeko ere ekintza aproposa da.



## Besterik?



Beste edozein argibide behar izanez gero, jarri gurekin harremanetan honako posta elektronikoaren bidez:

[naturtzaindia.info@gmail.com](mailto:naturtzaindia.info@gmail.com)

